

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Uztailak 27, 74. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



KOLDO RODRIGUEZ:
"Fraideok geure burua
ikusteko era aldatu dugu"


Ordu latzak zikloturistentzat



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

SALGAI ATBren KAMISETAK



Gure kamiseta eskuratu nahi baduzu, uztailaren 12tik 26ra bitartean, salgai egongo da ATBren bulegoetan. Zatoz.

Ordutegia: arratsaldeko 5etatik 6etara.

Prezioa: 2.000 pezeta.

Galdetu Josune edo Karmelegatik.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Kamele
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan
Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito
Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi,
Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan,
ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:
J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



Laster arte!

Oporretara goaz. Urte guztiko buruhaustek astindu asmoz, egune-roko monotonokeriatik urrunduko gara hilabete oso batez. Ongi etorri-ko zaizkugulakoan nago. Nik, bederen, horrela espero dut eta berbera opa diet irakurleei.

Barne-bateriak deskargatuta dauzkat, urteroko garai honetan gertatzen zaidan bezalaxe. Lumak ere nekez korritzen ditu lerroak, nagituta balego bezala. Burmuinak ez du "ikasturte" hasierako koipetasuna azaltzen eta kostea egiten da makineriaren pieza guztien elkarlana eratztea. Ez dakit, psikologikoki aztertuta, abuztuaren hurbilketak era bereziz ez ote duen eragiten nire baitan. Gero eta ahulago aurkitu ohi izan naiz uztailean zehar, nolabait soldadutzaren aroa gogora datorkidalarik: zenbatu egiten genituen, militar zerbitzua bukatzeko geratzen zitzaizkigun egunak. Amaitezina zirudien lizentziatu aurreko asteak.

Arrasate ia-ia hutsik utziko dugu, bertan zenbait banka-langile, funtzionari eta betiko erromantikoak bakarrik geldituko direlarik.

Izan ere, herriko kerizpea beste inongoa baino nahiago duten arrasa-

tear horiei erromantizismo kutsu nabaria dariela uste baitut. Bere oporraldia Arrasatetik ez oso urruti ematen duen honek osteratxoren bat egiten du abuztuan gure kaleetatik zehar eta, aitortu behar dut, inbidia pixkat sortzen dute nigan, euren atsedena lasai asko Portaloiko eserlekuetan gozaten dutenek.

Oporretako planteamendu berriak ohitura aldaketari erantzuten dio. Estilo diferenteak, zalantzarik gabe, mundua txiki geratzen ari zaion gure gizarte honentzat. Horixe da urte gutxitan eraiki dugun egitura irenslea eta ustekabeen bere sarean harrapatu gaitu. Horrela diseinatu dugu oraina. Oker ala zuzen ari izan ote garen, ez dut uste oporraldia hastear dugun une hauetako galdera denik. Traszendentalismoak, utz ditzagun opor osterako. Orain, berriz, maleta eta talonarioak gertu behar ditugu.

Hortik zoazten guztioi, ondo igaro! eta "amazulooi", berriz, herria egokiro zaintzea eskatuko nieke. Ordain gisa zera agintzen diet, ez dudala itzultzean nire oporraldiari buruzko ezertxo ere kontatuko.

Josemari Velez de Mendizabal



enpresa
bazkariak
eta famili bilerak

“Mugaren bi aldetan dago Euskal Herria”

Jakin dudanez abuztuko oporren ondoren, irailaren 8an, hain zuzen ere, aspaldidanik Zuberoan antzetzen den Pastoral edo trajeria, Arrasaten ikusteko aukera izango dugu. 100 zuberotar izango ditugu “Abadia Urrustoi” izeneko Pastoral antzetzen. Eki-men kultural hau aprobetxatuz, bi egun pasatuko dituzte Arrasaten iparraldeko 100 euskaldunek. Gutun honen bidez, berri pozgarri hau aprobetxatuz, aspaldidanik dudan eta azken aldi honetan areagotzen ari zaidan kezka baten inguruan erreflexio txiki bat egitea da nire asmoa.

Abertzale guztiok, teorian behintzat, gure herria Aturritik (Adour-etik) Ebro-raino hedatzen dela eta 7 herrialdez osaturik dagoe-la defendatzen dugu, nahiz eta esandako hau, zoritxarrez, gaur egun bizi dugun egoera administratiboarekin zerikusi handirik ez izan.

Bizi dugun egoera hau aldatzea ez da epe laburrean lortuko dugun gauza, baina bitartean, euskal kontzientzia dugunok, gure herria zatitzen dituzten muga fisiko eta psikologikoak gainditzen eta apurtzen joan behar dugu. Orain arte esandakoa garbi dudanez, Iparraldeko anaez sarritan ditugun jarrerak eta indiferentziak min egiten didate. Hona hemen hainbat adibide:

- Zenbat aldiz entzuten dugu “Frantziara noie, dentistiana”, errealtatean dentistarengana Hendaia baino urrunago ez doan pertsonari?

- Duela bi-hiru urte Eskola Politeknikoan ikasten aritu ziren iparraldeko hiru mutil euskaldun eta jatorrei, denboraz, bati baino gehiagori, hainbat “euskaldunek” jarritako mote arrakastatsua “gabatxo” izan zen.

- Eta adibide hauekin ez luzatzeko, hona hemen duela hamar egun gertatutakoa: Eus-

kaldunon Egunkariaren azken festa zela eta, jai honen inguruko hainbat esku-orri utzi nituen denda batean. Dependienteak paper-txoari begirada bat eman eta gero, honako elkarrizketa hau izan genuen: “que es esto de 25 libera?”, “pues 25 francos”, “¡aja, los gabatxos que vayan al festival pagan en francos, o qué?” “sí, los gabatxos que van al festival pagan 25 francos y nosotros, los españoles, 500 pesetas”, une honetan, jarri zidan aurpegiatik, konturatu zen hanka sartu zuela, hori uste dut behintzat.

Adibide hauek argiak dira eta sarritan gai honen inguruan ditugun jarrerak islatzen dute.

Aurreko igandean, berriz, Maulen izan nintzen Pastoralaren lehen emanaldian. egia esan, egun pozgarria izan zen neretzat, ia hiru mila euskaldun, euskara hutsean egindako antzeslana adi-adi jarraitzen eta gozaten. Eta hau baino garrantzitsuagoa dena, pastoral egiten zutenek, adin guztietako 100 pertsona inguru, erabili zuten hizkuntza bakarra zuberera zoragarria izan zen. Arrasatera itzuli nintzenean, nahiz eta guztira ehundaka kilometro egin eta ditxosozko muga pasa, une batean ere ez nuen sentitu beste herri batean edo “frantziara” izan nintzeneko sentsazioirik. Are gehiago, pozik etorri nintzen hainbat partehartzailek, Pastoral antzetzera Arrasatera etorri behar dutela eta, oso pozik zeudelako, euretariko askok, ia-ia ez dira Hegoaldean egon, eta ia inor era honetako edo bestelako kultur iharduera baten inguruan.


Esandako guztiatik, Pastoralak duen garrantzi kulturalari ezer kengu gabe, pozgarria da Pastoral Arrasaten antzetzea. Izan ere, mugak apurtzeko, elkarren berri izan eta elkar ezagutu behar dugu bi aldeetako euskaldunok. Guzti honetarako, Pastoralak aukera ezin hobea ematen digu. Untsa izan!

G.P.

Laster arte!

Oporrak hartu ditugu. Zuekin izango gaituzue hutsik egin barik irailaren 7an. Ordura arte ondo izan.

Arrasate
Press



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

Monte

taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ARRASATE

PRESS

77 08 15


Zein asmo duzu oporretarako?



Lierni Mendizabal
Hemen inguruan geratuko naiz.
Urtero geratzen gara hemen.
Festaz festa ibiltzen gara.



Joseba Onsonio
(ikaslea)
Herrian geldituko naiz.
Normalean Saloura joaten gara.
Aurten lagunekin joateko nintzen,
baina gurasoek ez didatenez utzi,
herrian geratuko naiz.




Julian Zabala
(jubilatua)
Ez dut irteteko asmorik. Egia
esan, ez gara inora joaten; edozein
modutan, Donostia aldera
buelatxoren bat egingo dugu.



Ima Alkalde
(etxeakoandrea)
Kanpora joango naiz. Urtero
joaten gara herri berera.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORIASATE

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak

GOI PRODUKZIOKO MAKINA BERRIA

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

Memesa

79 42 22

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

Zubizarreta

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERTETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

27 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Abyss". 7 eta 10etan.
- Antzerkia bertan behera utzi: Clownart taldeak "Pasión fatal" lana antzeztu behar zuen Monterron parkean, baina taldekideek istripua izan dute eta suspenditu egin da emanaldia.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

28 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Abyss". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Musika emanaldia: Txintxarri Arrasateko musika taldearen emanaldia. Monterron parkean, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

29 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Abyss". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

30 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Una cana al aire". 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales. S. Andres.

31 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Una cana al aire". 7 eta 9.30etan.
- Erromeria: San Inazio eguna dela eta, erromeria Kanpazarren.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

1 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

2 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: oporretan
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

OHARRA

Eguraldi txarra eginez gero, Monterron parkeko kultur ekitaldiak Amaia antzokian izango dira.

LEHIAKETAK

- **Jose M^e Arizmendarreta V. Lehiaketa.** Gaia: "Egungo gizartea diruaren menpeko". Deba Garaiko ikasleei zuzendua. Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 6a. Gizabidea fundazioak antolatuta.
- **IV. lokin Zaltegi Itzulpen laburren sariketa.** Gaia: "Ekialdeko Europaren Aldaketa". Gaztelera eta frantsesetik ezik, beste edozein hizkuntzatatik itzul daitezke lanak. AED elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.
- **Arrasate 90 lehiaketak.** Ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazkia eta bideoa. AED elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.


ERAKUSKETAK

- **Estibaliz Ormaetxea arrasatearraren, pintura erakusketa** Mundakako Udal Liburutegian. Goizeko 11.30etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 9ak arte. Hilaren 31a arte ikusgai.
- **Martxe Arana, atxabaltarraren pintura erakusketa.** Zarautzko Torre Luzeako erakusgelan, abuztuaren 21etik irailaren 2a arte.

PASTORALA

- **Abadia Urrustoi pastorala Arrasaten.** Irailaren 8an Monterron parkean.

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia iraultuko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, adit berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-lamuzko azalak, 24 kililetako-urrez sutan eginak estanzapazoeekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

“ Une horretan pentsatu nuen hobe nuela eragozle egin, legez onar nazaten eta gero ikusi bide horretatik zer gerta zitekeen ze, orduko horretan, ez nuen garbi ikusten estrategia hori, soldadu joatearena eta bertan intsumisioa egitearena.

Hala ere, deituak izanez gero, intsumisioa egin eta kitto.

Ez dira motibo bereziak izan. Seguruen Euskal Herrian egoera horretan dagoen jende gehienak dituen arrazoi berdinak izan dira, nahiz eta, gero, pausu hori ematera ez ausartu.

Ejertzitoari kontra egiteko nire postura garbia antimilitarista da, eta ez-biolentoa ere bai; baina baita, argi eta garbi, arrazoi politikoengatik, Ejertzito hori den ejertzittoa delako: espainiarra.

Garbi izan dut beti nik ez nuela soldadutzarik egingo; horretarako nola egingo nuen ez nekien, baina ondo nekien ez nuela egingo. Eta orain bidea intsumisioa da. Azken finean, ordezeko zerbitzuari zein soldadutzari intsumisioa egitea nik uste dut gauza bera dela, eta arrazoiak ere antzekoak direla. Ordezko hori ez da soldadutzaren ihesgune bat besterik, soldadutzaren kontra dagoen jendea integratzeko Gobernuak asmatu duen irtenbide hutsa. Zerbitzu horrek soldadutza indartzen du, nik ez nuke bereizketarik egingo. Uste dut soldadutzaren kontra joan izan garen bezala, orain ordezeko zerbitzu zibilaren kontra joan behar dugula eta, orokorrean, Eragozpen-Legearen kontra”.

(Jon Sarasua bertsolariak Egin egunkarian)

Zer izan behar da kontuan, oporretan automobilez ibiltzeko orduan?

Automobilari harreta berezia eskaini behar zaio eta gidariak ere, normalean baino kontu handiagoa izan behar du.

Berebilari dagokionez, hiru zatitan banatuko nuke, motorra, gurpilak eta suspentsioa.

Bujiak, platinokak, karburadorea zein egoeratan dauden begiratu behar da. Honez gain, olioari beharbada, aditiboa bota. Olioak, motorra koipetu egin behar du. Beroarekin, olioak kontsistentzia gal dezake eta motorra ondo koipetzeari utziko. Hau dela eta, aditiboa botako diogu, hobeto koipe dezan.


Hazte sistema ere ondo dagoela begiratu beharko da. Antikonjelantea bota kotxeari. Urak erradiadorea erdoil dezake. Antikonjelanteak berriz, erdoilaren aurkako sustantziak ditu. Radiadorea garbi izan behar dugu eta elektrohaizagailu eta termostatoaren egoera begiratu dugu.

Gurpilei dagokienez, ardatz bakoitzean dibujo bera izatea eskatuko dugu gutxienez. Honez gain, autoak traxioa duen aldean, gurpil hobeak edukitzea gomendagarria da. Udaran ezezagunak diren errepideetan ibiliko gara eta normalean baino kilometro gehiago egingo ditugu, beraz, kubieta onak izatea komenigarria da.

Azkenik, suspentsioa aipatu behar. Oporretan, autoek normalean baino askoz pisu handiagoa izaten dute. Honek ziurtasuna gal arazten du. Beraz, motelgailu onak izan behar dira.

Auto gidariei lasai ibiltzea gomendatuko nieke. Inolako prisarik barik. Bestalde, zein ibilbide egin behar duten apuntatzea eta kopilotoari ematea komenigarria da. Kontuan izan, automobilean haur txikiaren orduetgia errespetatu behar dela eta ez gurasoena.

*Mikel Madinabeitia
Opel-eko langilea.*



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Joxe Letona artxiboa Monterronen

Arrasateko Udal liburutegian, aurtengo abendurako, Jose Letonaren artxiboa eta Juan Carlos Gerraren liburutegia izatea espero da.

Euskaltzaindiak apirilean, Jose Letonaren liburutegia aztertu eta sailkatzeko dirulaguntza eskatu zion Arrasateko Udalari. Arrasateko Udalak proposamena onartu zuen eta ordutik ikertzaile batek Jose Letonaren liburutegia txukuntzen eta sailkatzen dihardu.

Hiru motatako dokumentuak aurkitu dira liburutegian: Jose Letonak etxean zituen liburuak. Jose Letonaren artxibategia eta azkenik, honek, Juan Carlos Guerraren



etxetik jasotako zenbait karpeta. Behin material guztia aztertu

ondoren, Liburutegia, familiakoen esku geratuko da. Artxiboa, Monterron liburutegian gordeko da, nahiz eta familiakoa izaten segitu. Letonaren etxean aurkitutako Juan Carlos Gerraren dokumentuak, Euskaltzaindiaren Azkue liburutegira eramango dira. Edozein modutan, dokumentu hauek mikrofilmatura Monterronen gordetzea espero da.

Aurkitutako Juan Carlos Gerraren dokumentuek garrantzi handia omen dute, Arrasateko historia laburtzen duten eskuizkribuak dira eta. Hala ere, familiartekoekin zenbait arazo izan da eta oraindik ezin izan da materiala ondo aztertu.



Erakusketa Zarautzen

Martxe Arana aretxabaltarrak, abuztuaren 21etik iralairaren 2a arte, erakusketa egingo du Zarautzen. Martxeren pinturretan paisaiak, pertsonak edota itsasoko irudiak ikusi ahal izango ditugu. Martxe 1943an, Aretxabaletan jaio zen eta autodidakta da, nahiz eta Madrileko Arte eta Lanbide Eskolan zenbait ikastaro egin dituen. Erakusketa ugari egin ditu, atzerrian zein Euskal Herrian eta hainbat lehiaketatan sariak irabazi.

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

FAGOR SUKALDEEN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 79 18 92



ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
abuztuaren 6rako

- Ortuari eta ganba-xehakina
- Keztatuen kabia hegaluze-belouté gainean
- Izokin eta erreboilo-abanikoa hiru konpotez
- Mugurdien aparra sagarhorrien gain kanela usainaz.

3.600 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ORATI

■ Santa Maina auzokoak haserre

Santa Mainako jaiak zirela eta, berandu arte zabaltzeko bainamena eskuratu zuten tabernek. 4.30ak inguruan, ordea, Ertzaintzak itxi egin zituen auzoko tabernak.

Ertzaintzaren iturriek aditzera eman dutenez, neurria auzokide batzuen deiak jaso eta gero hartu zen. Santa Mainako alkatetzak, ez dago egindakoarekin adoz. Euren ustez, jokaera diskriminatailea izan zen eta.

■ Abaroa taberna

Arrasateko Udalaren azken Oso-ko Bilkurak Abaroako taberna Esteban Arana Mendikuteri adjudikatzea erabaki zuen. Hasiera batean, urtebetez adjudikatu zaio, baina bost urtez luza daiteke berau.

■ Zuzenbide ikastaroa UNEDen

Bergarako UNEDeko Zuzenbide sailak datorren ikasturterako Praktika Juridiko ikastaroa antolatu du.

Zuzenbide lizentziatuek edo 5. maila ikasten dihardutenek, egiteko aukera izango dute. Gipuzkoako Abokatu Eskolak gainbegiratu.



Roneo lantegi-zaharra botatzear

Epeak zehaztu barik badaude ere, ziurrenik abuztuan

Arrasateko Udalaren azken Gobernu Batzordeak Roneo enpresa botatzeko aurreproiektua onartu zuen. Laukale enpresak, Roneo enpresari lantegia erosi zion orube horretan etxeak egiteko. Beraz, Roneo enpresa botatzea urrats berria da etxe horien eraikuntzarako.

Lantegia noiz botako den zehaztu gabe badago ere, lehenbailehen botatzea espero da, abuztuan ziurrenik.

Arrasateko Udalak Laukale enpresari Roneo bota baino lehen Udaltzaingoarekin harremanetan jartzeko eskatu dio, hesi babestailea jartzeko.

Oraingoan, lantegia baino ez da botako, inguruko etxeetako biztanleekin akordiorik ez du lortu eta Laukalek. Bestalde, Roneoko etxeen oinarriz proiektua Laukale enpresak aurkeztu du Udaletxean, baina oraingoan ez da aztertu.



Ubago kardiologoari omenaldia

Espainiako Kardiologi Elkarteak omenaldi beroa eskaini dio Jose Luis Martínez de Ubago kardiologo mondragoetarrari, Valentzian egiten ari zen Hemodinamikako Biltzarrea aprobetxatuz. Hamar urte bete dira Martínez de Ubagok angioplastia erabili zuela lehenengo aldiz estatu mailan, zirugia erabili barik, bihotzaren odol-arregaketa oztopatzen zuen arteria osatzeko. Jose Luisek Donostiako Poliklinikoan egiten du lan. Zorionak!

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Bi urte luze ondoren, Osoko Bilkurak berriro ere Udaletxean

Aurrera EUDELen proposamenak

Bi urte eta gero Osoko Bilkura Udaletxean

Ia bi orduz luzatu zen joan den asteko Arrasateko Udalaren Osoko Bilkura. Jose Mari Usatorre alkateordeak zuzendu zuen, Alkatea kanpoan dago eta. Azken bi urteotan Monterronen egin ostean, ostiralekoa izan zen Udaletxe berriztuan egin zen lehena. Iñaki Txintxurreta, idazkari berriak karguaren jabe egin ondoren, ekin zioten gaiak eztabaidatzeari.

Hamasei izan ziren hirigintzari lotutako puntuak. Musakolako Industrialde berria, Gorostiza-Larreako planaren aldaketa eta Mojategi inguruan atletismo pistak egiteko egin beharreko lur desjabetzeak izan ziren aipagarrienetakoak. Roneo-Biterri ingurua nola eraikiko den ere tratatu zen, Alde Zaharra eraberritzekeo planaren erakusketa irailaren

15era arte luzatuz.

AUKEAren zorrak estaltzeko aurrekontuen aldaketa ere onartu zen ostiraleko Osoko Bilkuran, PSOE proposamen honen kontra agertu bazen ere.

Ostiraleko Osoko Bilkuran aztertu zen azken puntua izan zen beharbada eztabaidatuena, Euskadiko Udalen Elkarteak, EUDELeke, egindako proposamena hauteskunde garaiko publizitatea arautzeko. Proposamen hau, HBren aurkako botoekin onartu zen. Araudi honek, publizitatea non egin, zein baldintzatan, banderatoak, pankartak eta kartelak ipintzeko arauak ematen ditu, eta zigortzeko neurriak aurrikusi, betetzen ez dituztenentzat. HBk ez zuen onartu, berak egin ohi dituen kanpainen kontra ikusten zuelako.

Usteak uste...

Hiztegian begiratzen baduzue, hauxe dio. "Oporraldi: norbait beraren ohizko lanetik aske gertzen den denboraldia." Herri honetako oinezko gehienoi horixe egiteko garaia heldu zaigu, oporrak hartzekoa alegia. Zuri bezala, irakurle, guri ere, hilabetez bederen, atsedena hartzeko sasoia iritsi zaigu.

Hilabetez, zuetariko gehienek bihurtzeko aukera aprobetxatuko duzue, edo larruazalari kolore piskat emateko hondartzarik aproposenetara joko. Mondragoen geldituko direnak gutxi izaki, abuztuan Arrasate Pressik ez ateratzea erabaki dugu.

Bitarte honetan pilak kargatu, egindakoaz hausnartu, egitekoaz pentsatu eta irailean itzultzen garenen ea gai garen, orain arte egin dugun baino adizkari hobea egiteko. Itxura edertu eta erraztuz, sail berriak irekiz, eta ideia onak paperetuaz.

Irailean hasi eta orain ixtera goazen aldi hau nekagarri bezain zirragarria izan da. Aldizkaria finkatu eta hobetu dugu. Era zehatzean susmatzen genuena jakin izan dugu: oso harrera ona egiten diozuela Arrasate Pressi. Horrezaz gainera, Arrasate Telebistaren jaiotzan egin dugu lan.

Ea irailean irekiko dugun aldia gutxienez aurrekoa bezain emanorra den. Hala bedi. Irailaren zazpian Arrasate Press zure postontzian izango da. Bitartean, ondo pasau.

Joxe Aranzabal

KANPAIA
erretegia


Sukaldari arrasatearrak

Meagara bidean. GETARIA Tfnoa: 83 04 40

E D E L
TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Herriko %50a gasez hornituta

462 etxebizitzak gas naturala erabiltzen du

Gas-naturalaren horniketaren 2. epearen lanak orain dela aste batzuk bukatu ziren. Dagoeneko Arrasateko %50a gutxi gorabehera gasaz hornitu da. Lan hauek 1989an hasi ziren eta guztira 10.000 metro hodi erabili dira.

Gaur egun Arrasaten 462 etxebizitza edo komertziok erabiltzen du gasa, baina urte bukaerarako 1.500 izatea espero da, oraindik 1.100 eskaerari ez zaio erantzunik eman eta.

Esan bezala, oraindik herriko auzo askori ez zaio gasa heldu, Aldai, Aldai-Gain, Musakola, Santa

Marina, Makatzena eta Santa Teresa hain zuzen. Herriko erdialdeari, gasaren horniketa sarea egina badu ere, ez zaio irailera arte gasik eman-go. Aurtengo aurrekontuetan ez da gas horniketa lanak egiteko diru partidarik gorde eta beraz, herri osoak gasa noiz izan dezakeen ezin da jakin. Naturgasek, gasa zabal-tzeaz arduratzen den enpresak azal-du duenez, euren asmoa herri osoari aukera zabaltzea litzateke. Hala ere, Udalarekin adostasunera heldu beharra dute, eta ezin da jakin falta diren auzoei noiz helduko zaien gasa.

■ Gazte bat hilda aurkitu

Ertzaintzak adierazi duenez, joan den asteburuan, Julio F. P. San Andres auzoko 26 urteko gaztea hilda aurkitu zuen amak etxean, besoan xiringa bat sartuta zuela.

Julio heroinazalea omen zen eta, antza denez, heroina sobredosiak hil zuen.

■ Kataideko jatetxearen adjudikazioa

Arrasateko Udalaren azken Oso-ko Bilkurak, Kataideko jatetxea Arantxa Salegi eta Victor Vitoriani adjudikatzea erabaki zuen. Hau izan zen, aurkeztu zen eskaera bakarra eta baldintza guztiak betetzen zituenez, euren eman zaie Kataideko jatetxea ustiatzeko aukera. Udalak, jatetxe honekin, Musakolako Kiroldegiko jatetxea ixteak sortu duen hutsunea bete nahi du.

JAIOTZAK

Markiegi Aranburu *Ane*, Uztailaren 14ean.
Dávila Expósito *Mikel*, 17an.
Maskariano Urizarren *Nerea*, 17an.
Fernandez Piñeira *Nerea*, 18an.
Martin Calvo *Eneko*, 19an.

EZKONTZAK

Juan Carlos Alvarez Perez & Agustin Sanchez Blazquez. Uztailaren 20an. Elizez.
Vicente Jose Gorosarri Perez & M^o Remedios Medina Merino. 21ean. Elizez.
Miguel Pedraza Luque & M^o Concepción Perez Corral. Elizez. 21ean.
Juan Carlos Bengoetxea Arakama & M^o Antonia de Tena Barquero. Elizez. 21ean.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^o Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^o Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...


Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Zuberoako antzerki berezi hau lehenengoz Arrasaten

Abadia Urrustoi Pastoralak

Irailaren 8an Arrasaten

Irailaren 8an Mauleko eta Atarrazteko ikastolek antzeztutako pastoralak ikusteko aukera izango dugu. Hau da lehen aldia kultur elkarte batek pastoralaren antolaketa bereganatzen duena, orain arte herriek antzeztu zuten eta. Abadia Urrustoi pastoralak, Irlandan jaiotako astronomo euskaldun honen bizitza kontatzen digu, hiru ordu t'erdiko emanaldian. Testua Jean Louis Davant idazlearena da.

Pastoralaren jatorria Erdi Aroan

galtzen da. Pastoralak, aintzina, Grezia, Britainia, Irlanda eta beste herrialde askotan antzeztu bazen ere, gaur egun Zuberoan baino ez da egiten.

Pastoraletan, pertsonaia gorriak eta urdinak aurkituko ditugu. Gorriek pertsonaia gaiztoak antzeztu dituzte eta urdinek berriz, onak. Garraile beti urdinak izaten dira.

Abadia Urrustoi pastoraletan, guztira ehun pertsonak hartuko du parte.

■ **Gorostiza auzoari lurak erosi**
Arrasateko Udalaren azken osoko bilkurak, Gorostiza auzoari 41.600 m² erostea erabaki zuen. Udalak 46 milioi ordainduko ditu metro hauen truke eta behin orube horretan etxeak egin ondoren, 56 garaje ematera konprometitu da.

■ **Santiagoagorako erromesaldia**
Bost arrasatear, erromes joan dira Santiagora. Erromesak, Pepe Gimenez, Xandro Arregi, Enrique Arana, Jon Jauregi eta Joaquin Etxeberria ditugu. Erromesak igande goizean abiatu ziren Santiagorantz eta dagoeneko 200 kilometrotik gora egin dituzte. Eguzkiak zenbait arazo sortu die, baina hala ere animoso omen dabilta.

■ **II. Arte Hamabostaldia**
Gaur Hamabostaldi taldeko eta Udaleko kultura batzordeko ordezkariak bilera egin dute II. Arte Hamabostaldira etorriko diren artistak aukeratzeko. Guztira hamalau izan dira aurkeztu diren proiektuak. Hamabostaldira aurkeztu diren artista gehienak Euskal Herrikoak badira ere, Estatuako artistak ere aurkituko ditugu eta tartean arrasatear bat. Hamabostaldi taldeko ordezkariak aditzera eman digutenez, oso proiektu interesgarriak aurkeztu dira.
II. Arte Hamabostaldia urriko lehen bi asteetan burutuko da.



Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)


Non pasatuko dituzu aurten oporrak?



Pedro Mari Ruiz de Azua
(EAKo zinegotzia)

Brujas-era joango naiz. Handik Frantziako itsasertzetik zehar Euskal Herrira etorriko naiz, Normandia, Britainia eta inguru hori ezagutuz. Dirua gastatu arte ibiltzeko asmoa daukat, hiru bat aste edo.


laz berriz, Valdellos inguruan ibili ginen, baina aurten gertatu direnekin, ezta pentsatu ere.



Jose Luis Lana
(PSOEko zinegotzia)

Nire jaioterrira joango naiz, Murietara, Nafarroara. Astebete inguru Galizian egongo gara, baina gainontzeko egun guztiak Nafarroan.

laz ere Murietan egon ginen.



Bittor Aranzabal
(EEko zinegotzia)

Aurreko bi asteak Zarautzen emango ditugu eta hurrengo bi asteak pasatzera Ezkaraira, Errioxara joango gara.

laz ere, Zarautzen egon ginen.



Ino Galparsoro
(HBko zinegotzia)

Lehen astea Arrasaten emango dugu eta ondoren hamabosten bat egunetarako Pirinio aldera joango gara, Selba de Oza ingurura. Mendialdera joateko ohitura dugu. Edozein modutan, oraindik zehaztu gabe ditugu oporrak.




Jose Luis Etxebarria (Porru)
(Udaltzainburua eta Mondra-ko lehendakaria)

Gu beti bezala Orioko camping-era joango gara. Azken bost urteetan hara joan izan gara. San Juanak inguruan karabana hantxe jartzen dugu eta emaztea eta haurrak han egoten dira. Ni astebukaeretan eta abuztuan egoten naiz.



Antton Zumalde
(SUDCEko lehendakaria)

Oraindik zehaztu gabe dugu, baina ziurrenik Costa Brava aldera joango gara. Campingean hogeiren bat egun emango ditugu. laz aldiz, Tarragona inguruan egon ginen.



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	ITZULPENAK
Frantsesa	
Ingelesa	INTERPRETARIAK
Italianoa	

Bisitak, Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

Abuztuan ere
zatoz

AMAIUR

tabernara

Ignazio Zuloaga 6,
Tfnoa: 79 64 53



Rosa Otaduy
(masajista)

Galiziara, Grovera joatea pentsatu dut. Apartamendua hartu eta hantxe emango dut hilabete osoa. laz ere, hantxe egon nintzen eta aurten ere, bueltatzea pentsatu dut. Hango lasaitasuna oso gustatu zitzaidan.



Josemari Velez de Mendizabal
(Idazlea)

Ziuraski astebete Mallorcan emango dut eta gainontzeko opor egunak Uribarri Ganboan emango ditut. Huraxe da nik gogokoen dudun txokoa. Urtero joaten naiz Uribarri Ganboara.



Jon Arregi
(Besaideko lehendakaria)

Hasiera batean, Donostia aldera joango naiz, hondartzara. Bestalde, uren dibisoriaren travesia egin nahi dut, hau da Arrasateetik Belaguaraino.



Blanca Jauregi
(Gazte dinamizatzailea)

Hilabete osorako Guatemalara joateko asmoa du.



Nati Abasolo
(Udal Euskaltegiko zuzendaria)

Hamabosten bat egunetarako Lanzarote-ra joatea pentsatu dugu. Eta gainontzeko opor egunak, berriz, Aretxabaletan emango ditugu.




Juanito Arzamendi
(Arrasate Musikal-eko zuzendaria)

Semea Cadiz-en soldaduzkan dut eta hango herritxoren batera joango gara. laz ere, seme zaharrena hantxe zegoen soldaduzkan eta Conillen eman genuen hilabete osoa.



Juan Luis Arejolaleiba
(AED elkarteko kidea)

Oraindik oso ziur ez dakit nora joango naizen, baina astebete Pirinio aldean eta beste astebete kostaldean ematea pentsatu dut. laz Euskal Herria zeharkatu nuen bizikletaz.



Antton Egia
(Ertzainburua)

Errioxara joango gara, camping batera. Hantxe hilabete osoa emateko asmoa dugu. laz Sopolako camping-ean egon ginen, baina Euskal Herrian gero eta turista gehiago egoten da eta Errioxara joatea pentsatu dugu.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN


ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

VE ECUADOR



Kontzesifto 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Mundu guztiko soziologoek Madrilan izan zuten zita, Mundu mailako Biltzarrean. Haietako 60 Arrasateko kooperatibak ezagutzera etorri ziren. Egun bat beranduago, non agertzen zaizkigu Arrasate Pressen **Francoise Dejaeger** eta **Jan Dundervoet** belgiarrak, Lovainako Unibertsitateko irakasleak, galduta, eurek ere kooperatibak ezagutu nahi zituztela. Azkenean telefono dei pare bat egin eta lortu zuten helburua.



Iñaki Iñurrieta plaentxiarrak *Dersu Uzala* nobela euskaratu zuen aspaldi. Itzulpengintzaz batera, kazetaritza ari da ikasten, aurtun 3. kurtsoa. Egin beharreko lanen artean Arrasate Press aukeratu du baten gaitzat. Bi aste bete direla, hemen izan zen Goio Aranarekin lanean. Izan ere, Arrasate Pressen autoedizioa eta maketazioan zentratu du Leioako Kazetaritza Fakultatean aurkeztuko duen lana.

◀ Makina bat lan izan zuen **Iñaki Txintxurreta**, 23, idazkari berriak joan den ostiraleko udalaren osoko bilkuran. Diktamenak irakurtzen bakarrik denbora luzea. Eskerrak **Jose Mari Erañak** lagundu ziola almatiba egunean, bestela...Iñakik ezin izan du Arrasaten etxebizitzarik topatu eta Aramaion bizi da. Esan zigunez, betiko utzi du futbola, ez bait du astirik. Badaezpada, Porru hurbildu zitzaion galdezka, baina kia.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



◀ 1940ko abuztuaren
 ▶ 10ean ezkondu ziren
 Gesalibarreko parrokian
**Marzelino Berezibar eta
 Juana Llodio.**

Marzelinok 84 urte ditu gaur egun; Juanak 77.

Pasa den igandean, senar-emazte hauek *urrezko ezteiak* ospatu zituzten, abuztuan mundu guztia oporretara joan aurretik. 24 senitarteko elkartu ziren, eta Santagedako parrokian 12etako meza entzun ondoren, Aramaixoko Azkoaga auzora hurbildu ziren bazkaltzera, Dukiena jatetxera.

Ziur Marzelino eta Juanak egun ederra pasatu zutela. Guk ere zorionik beroenak opa dizkiegu, eta opari gisa, Gorrotxategik idatzitako bertsoa ekarri dugu txoko honetara:


Egun handi hau Martzelino ta Juana biok goraldiaz guraso jator egin zineten zuen bi seme sortuaz zenbat neke eta zenbat izerdi bi eskuak urratuaz bizi zaitezte gaurtik aurrera goxoki besarkatuaz zuen seme alaben lastan goxoak hartuaz

izen propioak

■ **Alberto Garai**, 26, arrasatearra, abuztuán Erroman izango diren Munduko Igeriketa Txapelketan, Espainiako selekzioko mediku ofiziala izango da. Albertok medikuntza ikasketak egin zituen Gasteizen eta azken hiru urteetan, kiroldegiko medikua da.

■ **Sonia Txaparro**, 17, arrasatearra, Erroman jokatuco diren Munduko Igeriketa Txapelketan parte hartzeko aukeratu dute. Soniak hiru urte terdi dihardu igeri egiten eta azken zortzi hilabeteetan monoaletekin dihardu. Txapelketa honetan parte hartzeko aukeraketa frogetan hiru rekord hautsi zituen. Sonia, goi batxilergo ikasketak egiten ari da ETEOn.

■ **Sonia Biamonte**, 20, arrasatearra, Erroman jokatuco diren Munduko Igeriketa Txapelketan parte hartzeko aukeratu. Soniak bost urte dihardu igeri egiten. BBB eta UBI ikasketak egin zituen eta azken urtean, Arrasateko Kiroldegian sokorrista lanetan ari izan da. Datorren urtean, azafata ikasketak egingo ditu.



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 Arrasate. 79 98 94

BIONA

Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

Otolora 2, ARRASATE

Zoritxarrean dagoen zikloturismoa

Hilabetean, J. Caballero eta J.M. Saiz arrasatearrak errepidean hil

Egun beltzak bizi ditu Euskal Herriko zikloturismoak. Azken hilabetean, eta istripu madarikaturen ondorioz, lau kirolari hil dira errepide bazterretan. Horien arteko bi, mondragoetarrak ziren, Jose Caballero eta Jose Mari Saiz, hain zuzen ere.

Eztabaida zaharra ireki da berriro. Ze neurri hartu beharko lirateke, igande goizean bi gurpilen gainean ttipi-ttappa doan edonork bere bizia arriskuan jar ez dezan?

Zikloturistak egokiro babestu daitezela, lege araudiak, ganorazko azpiegitura, trafiko zaindarien begirunea, eta bolantea esku artean darabiltenen errespetua; horra hor zoritxarreko zikloturismoaren erronka.

nean, bertatik pasatzen diren berebilek 40 km. orduko abiada errespetatu behar dute.

Hirugarren aukera, txirrinduan ibiltzeko bidegorriak. Antza denez, Eusko Jaurlaritzak landua omen du ideiarenean, garai bateko trenbide zaharrak bizi-zikletaz ibiltzeko egokitu asmotan. Egitasmo hori kajoi batean ahaztu dute, ordea.

Egokiro babestu beharra

Istripurik gertatzen bada, txirrindulariak galtzen irteteko aukera guztiak dauzka. Beti.

Egoeraren aurrean, argi dago zikloturista kontzientziatu behar dela bere gorputza egokiro babesteko bidean: belauak, ukalondoak, eta burua.

Batez ere burua. Funtsezkoa, garrantzitsuegia da tontakeriatan ibiltzeko. Ez litzateke inor kaskurik gabe atera behar; baina...

Legearen inguruko eztabaida

Legearen arabera, zikloturistek banan-banan joan beharra daukate errepide bazterretik zehar.

Kirolariak, ordea, ez daude ados erabaki horrekin. Euren ustez elkartuta joateko aukera izan beharko lukete, elkarren ondoan joateko eskubidea. Auto gidariak orduan, beste ibilgailu guztiakin jokatzeko duten moduan ibili



Txirrindulariek taldeka joan nahiko lukete, elkari babesa emanak

1990eko ekainaren 10a. Jose Caballero mondragoetarra Andoainera hurbildu zen, nazioarteko zikloturista txapelketan parte hartzeko asmoz. Tolosako Benta Aundi auzoaren parean, kamioi batek jo, eta errepide bazterrean gelditu zen hilda. 46 urte zituen.

1990eko uztailearen 15a. Gipuzkoako zikloturista itzulian zihoazela, berebil batek Martin Irizar beasaindarra eta Jose Mari Saiz arrasatearra harrapatu zituen Billabonan. Bi kirolariak bertan hil ziren. Martinek 29 urte zituen; Jose Marik 50.

Ondo garesti ordaindu zuten igande goizeko irteera; eta tamalez, askotan errepikatu den historia dugu.

Azpiegitura makala

Errepide estuak dira seguruenik

Gipuzkoako zikloturisten etsairik amorratuena.

Berebil eta kamioien trafikoa itzela da gure probintzian, eta kasu gehienetan, ez da bide-bazterrik existitzen. Horixe da, hain zuzen, zikloturista

Auto gidariak azkarregi ibili ohi dira, urduritasun handiegia somatzen da errepideetan; eta aurreratzerakoan, adibidez, astakeriak ditugu eguneroko ogia

elkarteen eskarietariko bat: errepideak zabaltzea, eta dagokien bide-bazterrek egitea.

Aipagarria da Bizkaian duela gutxi praktikara eramanez duten egitasmoa. Bost zirkuitu prestatu dituzte zikloturistentzat, eta irteerak antolatzen dire-

beharko lirateke: errespetatu, itxaron, eta dagokien tokian soilik aurreratu.

Gidariak adi: bizitza dago jokoan

Mundu berezia dugu gidariena. Euren ezaugarria, presa. Urduritasun han-

diegia somatzen da errepideetan; eta aurreratzerakoan, adibidez, astakeriak ditugu eguneroko lagun.

Ez hori bakarrik. Sarritan errepikatu den eskena dugu albokoarekin hizketan doan txoferrarena, edo musika aldatzen ari denarena, edo zigarroa pizten...Igande goizetan, gainera, areagotu egiten dira arazoak, azken orduko diskotekaren batetik alkoholez gainezka datozen gau-txoriekin.

Eta ez da txantxetako kontua. Alde batetik auto-gidarien eta euren lagunen bizitzak daude jokoan, baina baita errepidean zehar doazen beste guztienak ere. Eta horien artean, txirindulariak dira babes gutxien dutenak.

Hadi, beraz, gidariok. Aseguruen milioiek ez bait dute galdutakoa konpontzen: bizitza dago jokuan.



Kontu handia aurreratzerakoan: bizitza dago jokuan

Bizikletan ibiltzea plazerra, eta ez arriskua

Txirinduan itzulia egitera irteak plazerra beharko luke izan, eta ez arriskua. Estadistika hotzek diotenez, berriz, bi hilabetez behin bizikletazale bat hil ohi da Euskal Eikarte Autonomoan.

Txirindulari askok ez du bere gorputza egokiro babesteko ohiturarik; eta kritikagarria da hori.

Baina era berean, salatu beharra dago berebil eta kamioi gidariak bizikletan ari direnenganako erakusten duten errespetu falta ere. "Errepideetan, gizarte honen gainontzeko ataletan bezalaxe ibili ohi da jendea: arrain handia txikia jan nahirik", adierazi digu zaletu batek. "Txirinduan gabiltzanok, antza, hutsaren parekoak gara; poliki ibiltzen gara, presarik gabe... eta hortietek dira, hain zuzen, gure aurka bihurtzen diren armak. Abiadurak erabateko leheniasuna duen garai honeian, geldu ibiltzea arriskugarria da itxura denez, eta ondorioz, muturreko guztiak jasotzeko jaiok garela dirudi".

Zalantza barik, haserre daude zikloturistak. Bizikletan dabilenarenenganako errespetuaren kultura alda-

rikatzen dute, eta amets egin, Holandan duten araudi-errespetu giroa noizbait gureganatzea lortzearekin.

"Sikiera bazter-bideak beharko genituzke, eta elkarren ondoan joateko eskubidea edukitzea. Horrela, gidariak beste ibilgailuekin jokatzeko duten bezala jokatu beharko lukete gurekin, errespetatu, eta dagokien tokietan aurreratuz".

Arrasateko ertzainburua den Anton Egia ere zorrotz agertzen da auto gidariarekin. "Ez dakite zer den errespetua, inondik inora; eta txirindulariekin, are eta gutxiago". Bizikletan ibiltzera ateratzen direnei ere, nahita ez kaskua eraman dezatela aginduko lieke. "Azken finean, euren segurtasunerako bait da. Hobe aurrez neurri egokiak hartu, gero negar egitea baino".

Taldean joan, edo banan-banan; horra hor eztabaida. "Neri ondo iruditzen zait zikloturistek bikote edo taldeka joan nahi izatea; baina legeak alderantzizkoa esaten du, txirindulariak banan-banan joan behar direla; ondorioz, ertzainburu bezala lege hori bete araztera behartua nago".

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

“Fraideok geure burua ikusteko era aldatu da”

Koldo Rodriguez, fraide eta telebista esatari

Koldo Rodriguez, San Viator ikastolako irakaslea izateaz gain, ATBko aurkezlea da eta beharbada azken honegatik egin da Arrasaten ezaguna. Hala ere, Koldo ez da geldi egotekoa eta saltsa askotan aurkituko dugu. Viatortar fraidea, fraideak herritarrengandik hurbilago egon beharko luketela uste du eta asmo horrek bultzatuta, hor dihardu jo ta sua mila lanetan



Koldo Rodriguez

— Gaur egun, bokazioa eta horrelakoak, gainbeheran daudela esan daiteke. Zu fraide gaztea zaitugu. Zerk bultzatu zintuen bide hori aukeratzera?

— Ez dut uste fraide izatea gauza arraroa denik, kristau izateko beste modua baizik. Kristau era askotan izan daiteke eta norik berari gehien dagokiona aukeratu behar du.

Ez dut uste bokazioa dagoenik, fraidetzarako edota bestelako gauzetarako. Bokazio kristau izateko eduki-tzen da. Beharbada une hone-tan, fraide izatea oso erabilia ez den era izan daiteke, egia da. Baina gure eskuetan dago aldatzea, orain arte izan dena ez izatea, jendeak ez du ulertzen eta, orain arteko bizimodu. Beste era batez bizitzen saiatu behar dugu.

— Nola aukeratu zenuen komunitatea?

— Komunitatea aukeratzeta, norberaren historia pertsonalak markatzen du. Bakoitzari norbaiten alboan izatea tokatu zaio. Nik ez dakit jesuitekin egon izan banintz, jesuita izango nintzatekeen. Baina viatortarren artean egotea suertatu zitzaidan eta viatortarra naiz. Hor ez dago gauza majikorik.

— ATBn euskaraz ederto moldatzen entzuten zaitugu, aldiz euskaldun berri-zara. Zaila egin al zitzaizun euskara ikastea?

— Hamalau hamabost ur-

terekin ikastera Eskoriatzara etorri nintzen. Estatuko jendearekin topo egin nuen. Euskalduna nintzela konturatu nintzen, batzuk palentinoak ziren era berean. Euskal kontzientzia hartu nuen.

Hurrengo urtean, 100 pta.tan, euskara ikasteko metodo bat erosi nuen. Valladolidera joan nintzen Eskoriatzatik eta metodo harekin segitu nuen. Han Elgoibarko batzuekin zertxobait hitz egiten hasi nintzen. Gasteizera itzuli eta hiru hilabete eman nituen gaueskolan. Eta hori izan zen guztia, hurrengo urtean, ni neu hasi nintzen euskara irakasten. Ura edatea baino errazagoa egin zitzaidan euskara ikastea.

— Fraide bat telebistan ikustea ezin esan oso arrunt-a denik. Zerbait aldatu al

“Bigarren karrera aukeratu behar izango banu, kazetaritza hautatuko nuke”

da, zu telebistan ikusi ahal izateko?

— Nik uste, hein handi batean behintzat, guk geuk geure burua ikusteko modua aldatu dela. Guk geuk, batzuk behintzat, ez dugu nahi fraide komunitatea gauza itxi, misterioitsu eta klerikal bezala ikustea. Kristau talde-tzat har gaitzaten nahi dugu. Beharbada euren bizitza

modu berezian daramaten kristauak, baina kristau arruntak baino ez.

Ezer berezirik ez garelara, gero eta kontzientzia handiagoa dut, eta nik bezala beste askok. Berezia bizimodua izan dezakegu, baina gu ez gara besteengandik desberdinak. Lehen perfekzioarako bidea eta horrelakoak aipatzen ziren.

Guk ez dugu inolaz ere, abiabide perfektuagoa. Beste edozein izan daiteke gu bezain kristau, ezkontutan, seme-alabekin, bizimodu normala egiten.

egin zitzaigun eta guk oso ondo ikusi genuen.

Beraz, guk geure burua ikusteko era aldatu da eta gu aldatzen goazen neurrian, jendeak gu desberdin ikusten gaitu. Jakina kostatu egingo zaio, San Viatorrek Arrasaten historia luzea du eta. Jendea ez zegoen San Viatorreko fraide bat ekimen euskalzaletan ikustera ohituta.

— Gustora ari izan al zara?

— Hasieran, lasai itxura eman behar nuela jabetu nintzen. Beraz, horretan ahalegindu nintzen, nahiz eta prozesioa barrutik joan. Denbora joan ahala, eskua hartu diot eta lasai egoten naiz. Nik neure lana gaizki eginez gero, beste askoren lana izorra dezaket. Horrez gain, jendea euren etxeetan dagoela jakiteak lasaitasuna ematen du. Bestela izan beharko zukeela pentsa daiteke, baina zerbitzu bat eskaintzen dudala jakiteak lasaitu egiten nau.

Telebista mundua ere, oso atsegin dut. Beti pentsatu izan dut, bigarren karrera aukeratu behar izango banu kazetaritza hautatuko nukeela, telebista edota irrati munduan lan egiteko.

Saskibaloia, etorkizunari begira

Datorren denboraldian, arrasatearrak Central-Jet enpresaren babespean

Larunbat eguerdian, eta etorkizunari buruzko hainbat xehetasun emateko asmoz, Arrasateko saskibaloitzaileak prentsaurrekoa eman zuten Monterronen. Bertan izan genituen hizlari Jose Mari Balzategi, Txus Brizuela entrenatzaile berria, eta baita Pedro Martin eta Antonio Arabiourrutia, babesle berria izango den Central-Jet enpresaren ordezkariak.

Lehenik eta behin, Balzategik azken denboraldien balantzea egin zuen. Baikor agertu zen Jose Mari, Arrasateko saskibaloitzaileak ezagutu duen gorakadagatik.

Duela hamabost egun, gainera, albiste pozgarria heldu zitzaizkien Donostiatik. Ondarreta taldeak bertan behera utzi du saskibaloia, eta horri esker, mondragoetarrak bigarren mailan izango dira datorren denboraldian.

Dagoeneko lanean

Hori jakin bezain laster, saskibaloitzaile taldeko arduradunak lanean hasi ziren, egitasmo berezia borobildu asmoz.

Alde batetik, talde-zuzendaritzaren organigrama berria lotu nahi izan zuten, eta ondo lotu gainera. Etorkizuneari, Jose Mari Balzategi izango da lehendakaria; Jon Ander Juldain lehendakari-ordea; Roberto Elorza diruzaina; Pedro Mari Isasmendi idazkaria; Jabier Urzelai koordinatzaile teknikoak; eta azkenik, bokal



Larunbateko prentsaurrekoa Monterronen

lanetan Alberto Gorroñogoitia, Jesus Mari Idigoras eta Fran Hernandez ari tuko dira.

Entrenatzailea eta babesleak

Egitasmoa, ordea, ez da horretara mugatu. Arrasatearrak etsai gogorak aurkituko dituzte urrian hasiko den liga txapelketan, eta horiei aurre egiteko, saskibaloitzaileen munduan aski ezaguna den Txus Brizuela gasteiztarra fitxatu dute taldea entrenatzeko. Lanerako gogo bizian agertu zen Brizuela, eta berak adierazi zuenez, konfidantza handia dauka Mondragoen aurkitu duen taldearengan, Askatuak, Muebles Martin, edota Patronato bezalako talde borobilei aurre egiteko bidean.

Saskibaloitzaile taldearen babesleari dagokionez ere, albiste garrantzitsua. Datorren denboraldirako, arrasatearren talde seniorrak Central-Jet/Euskal-Air enpresaren dirulaguntza jasoko du; talde juniorrak Herri-Tourren laguntza, eta gainontzeko bost taldeek, berriz, Basko-Tourrena Guztien artean, 2.500.000 pta.ko aurrekontua. Balzategik eskerrik beroenak eman zizkion Arrasate Kiro-lak-i gaur arte eskainitako laguntza handiagatik. Etorkizunari begira, ostera, itxaropentsu agertu zen, jaio berria den harremanetik emaitza ederrak jasoko direlakoan.

Etorkizun prometigarria aurkezten zaio, beraz, Arrasateko saskibaloitzaileari; eta zaletu guztiak, denboraldi berriaren zain daude dagoeneko.

Kabia
Altzariak
Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

MIKEL
Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa
Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

podiuma


**Luis Mari Berezibar,
txirrinduaren aldeko
lan isila**

Luis Mari Berezibar, berrogeita-bost urte dituen arrasatearra, Dorletako Ama txirrindulari eskolan betetzen duen lanagatik dugu ezaguna. "Duela hamar urte inguru, txirrindulari eskola sortu zenean, seme nagusia saltsa horretan sartzeko gogotan etorri zitzaigun. Handik gutxira, batzarra zegoela eta, bertara hurbildu nintzen. Han aurkitu nituen Julio Isazelaia, Manolo Zubillaga, Javier Garcia eta abar. Hasieran isil-isilik egoten nintzen bileratan, baina konturatu orduko, elkartearen diruzain eta idazkari izendatu ninduten".

Ea merezi duen ezerezaren truke egindako isileko lan horrek. "Nik bi alde ikusten dizkiot. Bateik ordu mordo eman behar, zenbat eta zenbat haserre; baina bestetik, aurkitu dudako giro jatorra, edota semeak txirrinduan hain gustora ikustea... benetan asetu nau horrek".

Baikor agertzen da Luis Mari eskolak urte hauetan egin duen lana aztertzerakoan. "Mutikoentzat ikaragarri garrantzitsua izan da, txirrindua egin nahi duenak, behintzat, baduelako nora jo. Gaur egun, guztira laurogeitamar neska-mutiko mugitzen ditugu, txikienetatik hasi eta afizionatu mailara arte".

Emaitzak ere ez dira makalak. "Hor daude Enrike Alonso, Xabier Lazpiur edo Iñigo Roldan bezalako fruituak. Atzetik ere badatuz mutiko apartak. Diruz talde pobrea gara,



baina lana egiteko orduan, ikaragarri aberatsak".

Gaztetxoekin diharduen edonorentzat birtute handia omen da pazientzia. "Azpiko mailatan ez da arazorik egoten, gustora egin daiteke lan. Afizionatu mailara, oster, diru gehiegi ari da heltzen. Diru horren truke, noski, garaipenak eskatzen zaizkio mutikoari, eta bide horretatik, txirrindulariak azkarregi erretzeko arriskua dago".

Bestela, Luis Marien ustetan ondo egiten dira gauzak gaur egun. "Kirolarien jarraipen egokia, entrenamentuen programaketa, lesioen tratamendua... lehen existitzen ez ziren gauza guzti horiek ondo lotuak daude gaur egun".

Bukatu aurretik, kexu bat agertu digu Luis Mari. "Hamar urte dararamatzagu lanean, baina oraindik ez digu inork egoitzarik eskaini. Aspaldi eskatu genion Arrasateko Udalari ere, baina... kontua da elkarte gastronomikoetan elkartzen garela Dorletako Ama txirrindulari eskolaren egitasmoak jorratzeko".

Gay eta Maizbide ederto

Pasa den asteburuan Getxon jokatutako Euskadiko atletismo txapelketa absolutuetan, Jose Antonio Gay eta Ignazio Maizbidek urrezko domina bana eskuratu zuten. Jose Antoniok 200 metroko lasterketa proba irabazi zuen, 21.82 segunduko denboraz. Maizbide, berriz, jaun eta jabe izan genuen txabalina jaurtike-tan, 59.50 metroko markaz.

Bertan izan genuen ere Asier F. Arroia. Diskoa 38 metro eta 22 zentimetrora bidali ondoren, 9. postua eskuratu zuen.

Xabier Lazpiur

Denboraldi ederra burutu du Xabier Lazpiur txirrindulari atxalbaltarrak Kaiku-Gurelesa taldearekin. Lehenengo urtez korritu du afizionatu mailan, eta karrera mordo irabazi gainera. Ahozabalik utzi ditu aditu asko eta asko.


Banesto taldeak ere somatu du, antza denez, atxabaltarraren sasoi ederra. Ondorioz, baimena eskatu dio Kaiku-Gurelesari, Xabier EEEko afizionatu mailako Tourra korritzera eramateko. Utziko al du Kaikuk Banestorekin joaten?



ARRASATE
PRESS

77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrieras. 79 87 62

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

B.B. King eta Chuck Berry Anoetan

(edo mitoak hurbiletik ikusten direnean)

• Ikusmin handia zegoen kontzertu honetarako. Ez dira alferrik King eta Berry mitoak, Belodromoa jendez gainezka, asko eta asko kanpoan, sartu ezinik. Arrasatear ugari ikusi genuen bertan. Sarreraren prezioa ere modukoa, 1.500 pta., ezin esan merkea denik, baina beste askotan baino normalagoa.

• Ziurtasun aldetik egina zegoen montajea gehiegizkoa iruditu zitzaigun. Jendearen mugimendua mugatzeko hesi gehiegi zegoen eta belodromoaren zati handia alferrik galduta. Ez zaizkigu batere gustatzen artaldeak, hesiak eta artzaiak.

• B.B. King, nahiko fantasma. Txukun jo zuen, akatsik gabe. Rokanrolez kutsatutako bluesa, maila onekoa, baina besterik gabe. Gure-

tzat ez da "bluesaren erregea", bere musikoez behin eta berriz errepikatu zuten bezala, berak harrotuta jendearen idolatria onartzen zuen bitartean. Gugan ez zuen behintzat entusiasmorik sortu.

• Ondoren, izenik gabeko talde bat. Chuck Berryren taldea izango zela pentsatu genuen, baina hogeiren bat minutuz ari izan ondoren, desagertu egin ziren. Rokanrol klasikoa jo zuten, indartsu eta ondo. Bi mitoen artean eta izenik gabe, hau izan zen guretzat jaialdiko tarterik onena.

• Azkenik, Chuck Berry, Keith Richards edo John Lennonek beti idolotzat aitortu izan dutena. Ondo ari izan zen Chuck zaharra, bere kitarra pianoarekin tartekatuz, protagonismorik gabe. Jendearekin oso ondo

enroilatu zen, zer entzun nahi genuen galdetuz edota dantzariak eskatuz. Bukaera aldera emakumezko bat atera zuen, agian bere arreba, sekulako bluesak kantatu zituen. Ahots benetan flipantea. Bukaera, berriz, nahiko zakarra. Halako batean desagertu ziren, eta ez ziren berragertu. Aldegin zuten eta kitto.

• Aipagarria da komunikabideek jaso zuten tratua antolatzaileen aldetik. Aparkaleku bereziak sarrera ondoan, jartzeko leku bereziak, -berriro hesiak-, aparteko kasta balira. Moskeante xamarra guztiau.

• Laburbilduz. Kontzertua ez zen txarra izan, ezin zuen txarra izan. Baina mitoen aurrean ez genuen lilurarik sentitu. Sorry.

Patxi/Mikel

28an larunbata **KIMU**_k denda ireki

Zuk, etorri eta ikusi,
izango duzu nahi
adina opari.

Oporretan ondo ibili
etxera pozik itzuli



OPARI DENDA
JOKU DIDAKTIKOAK

Otalora kalea, Tfnoa: 79 75 43 ARRASATE



ARRASATEko UDALA

Udal-Plenoak, 1990eko uztailaren 20an egindako ohizko bilkuran, hartutako alkordioen laburpena

- A-20 (Musakola) Areako PERI plana behin-behinekoz onartzea.
- Konpentsazio Batzordeak bultzatutako S-8 Sektoreko (Gorostiza) Plan Partziala Aldatzeko Proiektua behin-behinekoz onartzea.
- A-8 Area (Polmetasa-Fagor Electrónica) ekonomikoki soilik Birzatzeko Proiektua zuzentzea.
- S-10 Sektorea (Mugarritte) Birzatzeko Proiektura behin-betikoz onartzea.
- U.6.17 Unitateari buruzko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testua behin-behinekoz onartzea.
- U.1.4 Unitateko (Gesalibar) Udal Planeamenduaren AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testua bukatzeko erizpide, helburu eta soluziobideak finkatzea.
- S-12 Sektoreko (Mojategi) lursailen jabegabetze espedientea dela eta, Kaltetuen ondasun eta eskubideen zerrenda behin-betiko onartzea.
- U.13.1 Unitatea aldatuko (Laubide) Urbanizaio Proiektuaren haserako onespina.
- S-3 Sektoreko Antolaketa Plan Partzialaren hasierako onespina.
- U.6.17 Unitateko konpentsazio Batzordearen Ihardueraren Estatutu eta Oinarrien Proiektuaren hasierako onespina.
- S-8 Sektoreko (Gorostiza) Konpentsazio Batzordean Gorostiza kooperatibari Sektore honetako lursailak eta honi dagozkion eskubideak erostea.
- Hirigune Zaharreko Berregokitze Integratuko Plan Berezia jendaurrean erakusteko epea luzatzea.
- Gipuzkoako Ur Patzuergoaren Estatutuen behin-betiko Testu berregina onartzea.
- Kale garbiketa zerbitzuaren adjudikazioa aginduko duten oinarriak onartu eta dagozkion lehiaketarako deialdia egitea.
- 1990rako Udal Aurrekontuen Kredituak Aldatzeko 1go espedientearen haserako onespina.
- Erainkuntza eta obrei buruzko zergak haunditzean, etekin fiskala emateko araudiak onartzea.
- Erainkuntzen Gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 11 eta 15 artikulua aldatzea.
- 1990erako AUKEAren Aurrekontuaren Kredituak Aldatzeko 1go espedienteari hasierako onespina ematea.
- Emakida administratiboko erregimenean Kataide Taberna-Jatetxea egokitu eta ustiatzea M. Aranzazu Salegi Furundarena And. eta Victor Victoria Perujo Jnari. adjudikatzea.
- Musakolako Jubilatuaeren Etxeko Taberna-Saloiaeren ustiapen-eskubidea adjudikatzeko lehiaketa aginduko duten Baldintza Juridiko-Ekonomiko-Administratiboen Plegua onartzea.
- Arrasateko Abaroa Jubilatuaeren Etxeko Ileapaindegiaeren ustiapen-eskubidea adjudikatzeko lehiaketa aginduko duen Baldintza Juridiko-Ekonomiko-Administratiboen Plegua onartzea.
- Arrasateko Abaroa Jubilatuaeren Etxeko Taberna-Saloia ustiatzeko emakida, Esteban Arana Mendikute Jaunari adjudikatzea.
- Administrazio Lokaleko X Hitzarmena onartzea.
- Obretako eta Hirigintzako erdi mailako Teknikari lanpostua betetzea aginduko duen oinarri-arauak onartzea.
- Arkitekto lanpostua sortu eta berau betetzea aginduko duten oinarri-arauak onartzea.
- Barne-promozio bidez kabo lanpostu bat betetzeko aginduko duten oinarri-arauak onartzea.
- Artxibari lanpostua sortzea eta berau betetzea aginduko duten oinarri-arauak onartzea.
- Barne-promozio bidez Administraziari lanpostu bat betetzea aginduko duten oinarri-arauak onartzea.
- "Accio Cultural del Pais Valencia"rekin elkartasuna adiraztea, TVV eta TV3ren bitartez emititu ahal izateko.
- EUDELeke bidalitako dokumentua onartzea. Dokumentu honetan Hauteskunde-Kanpainetako publizitatea erabiltzeko zenbait erizpide proposatzen da.

Idazkaria

Elebitasuna prozesua

Elebitasuna, prozesu historikoa da, ez-uniforme, toki batzuetan azkarago eta beste batzuetan motelago ematea baldintzatzen duten faktoreak, besteak beste, ondorengo hauek dira: Demografia, kontzientzia linguistikoa, gizartearen modernizazioa, egoera juridikoa, borondate politikoa....

Elebitasuna fase ezberdinetan ematen da. Lehen fasean, edozein arrazoi dela medio, "A" hizkuntza edo ama-hizkuntza eragin handia izango duten arlo zehatzetara hedatzen hasten da. Fase honetan ikasten dute, boterean dauden mandatariek, hiri handietako biztanleek, merkatari handiek, burgesek, artistek, intelektualek eta guzti hauengandik hurbil bizi diren hiritarrek.

Aipatutako hauek kuantitatiboki gutxi izanik ere, kualitatiboki eragin haundia dute. Izan ere, "B" hizkuntza, politikan, administrazioan, justizian

eta garrantzia handiko beste zenbait arlotan erabiltzen hasten da; hots, funtzio nazionala betetzera pasatzen da. Ondorioz, hizkuntza ofiziala eta kultu modura onartua izatera heltzen da.

Bigarren fasean, elebitasunaren hedadura geografikoa ematen da, beronekin batera aldaketa soziolinguistikoko garrantzitsuak gertatuz.

Hiri eta herri handietako elebarrak erabat elebidun bihurtzen dira eta elebidun zirenak beren ama-hizkuntza bazterten hasten dira, "B" hizkuntzan elebarrak izatera pasatuz.

Une honetatik aurrera "B" hizkuntzaren ofizialtasuna nabaria izango da, baina ez paperean soilik, baita erabilpenean ere, "A" hizkuntzak betebeharrereko funtzio gehientsuenak beteko bait ditu.

Hirugarren fasean ama-hizkuntzan elebarrak ziren guztien erabateko elebitasuna ematen da. Dagoeneko ez da

geratzen, ama-hizkuntza elebarrak den inortxo ere. Fase honetan ematen da ordezkapen linguistikokoaren unerik garrantzitsuena. Lehen elebarrak elebidun ziren hainbat eta hainbat "B" hizkuntzan elebarrak izatera pasatzen bait dira.

Fenomeno guzti hau "Aldebakarreko Elebitasuna" izenarekin ezagutzen da. Honek esan nahi du, alde batekoengan soilik ematen dela elebitasuna. Ama-hizkuntzan, "A" hizkuntzan elebarrak zirenak izan direla elebidun izatera behartutako bakarrak, alegia.

"B" hizkuntzan elebarrak direnek ordeza, ez dute inolako arazorik izango, eguneroko eginkizunetan moldatzeko ez dute eta, "A" hizkuntzaren beharrik.

Ez dezagun, ba, geure burua engainatu, erdal-elebakartasuna eguneroko errealitatea da.

Atalataikoan



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74 AGURAIN

Alkohola eta gaztetxoak (II)

Gutxienez behin mozkortu direla esaten duten gaztetxoek kopuru horren (%27,15a) kezkarri behar luke izan, gizartearentzat orokor-ki eta gurasoentzat batez ere. Baina ez da horrela, ez dirudi gai honek ardura handirik sortzen duenik.

Beste zenbait ikerketatan erregistraturiko datu bat badago, guk ez genuena geure itaunketan sartu, alegia, zein den guraso eta famili inguruaren erreakzioa. Eta datu horren arabera, gaztetxo edo nerabeen mozkorra txantxa eta barrez hartu zuten kasuen %30ean.

Esan behar da, beste faktore batzuen gaitetik, famili eta gizarte-inguruneak zerikusi handia duela alkoholiko baten eraikuntzan. Gure artean izan dira ohitura batzuk -eta oraindik ere jarraitzen dute- gizarte-

ren sentiberatasuna alkoholismoaren aurrean zein urria den argi eta garbi erakusten dutenak, batez ere, ez direlako ondo ezagutzen alkoholaren kontsumoak dakartzan ondorioak. Ohitura horien artean, gose zen haur txikiari, elikagai gisa, ardotan bustita ogia emateko ohitura aipa dezakegu. Gaur egun ez da horrelakorik gertatzen, ez bait dago goserik orain dela hamarkada batzuk bezala. Alderantziz, gure haurrek gehiegi jaten dutela esan daiteke.

Baina beste ohitura batzuek diraute. Adibidez, harrigarria da katarro eta marranta arintzeko zenbat gurasok ematen dieten brandy edo likorren bat seme-alabei.

Gure inkestan, 37 mutilek (%6,72ak) eta 9 neskak (%2,1ak) aipatu dute "sendagai edo osabide"

hau erabili dutela katarroa izan dute-nean.

Orain dela gutxi, txikitik jasan-dako jipoiak aipatzen zituen kontsul-tan adineko emakume batek, eta dena, ez zuelako esne eta ronaren nahasketa hartu nahi katarroa zuen bakoitzean.

Neskei, berriz, kopatxo bat emate-a hilekoaren molestiak arintzeko, gaur egun ere oraindik indarrean dagoen ohitura horietakoa da. Gure inkestatuen artean ia %2ak esan zuen likorren bat hartzen zuela honelako egunetan.

Zalantzarik gabe, ohitura hauek eta beste batzuek garbi islatzen dute gure gizarteak alkoholismoaren gaiarekin duen permisibitatea.

Eukeni eta Arantxa



Construcciones ARRASATE S. L.
 (Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Orain oporretan

Ikasturte eta, lanurte amaieran izanik, urte osoan zehar gehienok abuztu edo udako hilabeteren batean oporrak noiz hartuko zain egon gara. Oraingoan bai, etorri da dagoeneko.

Urte osoko bidearen amaieran gorputzari beharrezko atsedena ematen saiatuko gara. Guk geuk maletak egiten dihardugu, bizikleta gainean, parrilan ipini eta bizikletan kilometroak egitera eta bide batez gure ingurunea dastatu eta ezagutzera.

Gutxi batzuk Euskal Herrian ibiliko dira; beste batzuk, Landeetan, Britainian eta Holandan. Izango dute zer ikusi eta zer kontatu itzultakoan. Orduko lagun berriak, abenturak, hartutako bainuak, izandako problemak, zulatuak, etab.

Bihoakizue, bada, gure zorionik onena eta bidaia ona opa dizuegu,



Gure Marino

irailetik aurrera zeuen abentura eta irteerak txoko honetan lekua izango dutelakoan.

Bidean geratu direnei

Izenik ez dugu aipatuko baina ez genuke amaitu gura joan zaizkigun gure herriko bizikletari bi horiei gure agurra eman barik. Agurra bai baina errepide zein mendiko lagunak gogoratuz. Hurrengo batean errepide

eta zirkulazio-arauez be mintzatuko gara.


Amaitzeko

Le Tour-90 lasterketa bukatu denean, ezin joan, pozaren pozez gainera, gure Marino txapeldun handiaren aipamena egin barik. Ez dugu adjetiborik bizikletari handi honen lana goraiatzeko; bikaina benetan.

Ez ditugu, ez, ahaztu Indurain eta Pello: hauek ere berebiziko lana egin dute. Zeresan handia izango dute datorren urtean. Gainerantzeko ziklistek be jaso dezatela txalo beroa, hala moduzko zortea izan badute ere.

Gutxiago falta da datorren Tour arte. Aurki Donostia-Donostia klasika: munduko bizikletaririk gogorren eta bikainenak ikusteko parada izango dugu.

K.U.




Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.

Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58




KOMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hitzegia eduku ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaiokio Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, auki berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-lamuzko azalak, 24 kilaletako urrez sutan eginak estapanazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurtu eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Euskara ikasteko erabili beharreko obra

LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

Aste gazte

Gazteentzako Informazio Bulegoko atean "ITXITA" dioen kartela eskegi dugu. Beraz, zerbait nahi izanez gero, irailera arte itxaron beharko duzu. Ordura arte!!

Gipuzkoa jaietan

- Abuztuan? Nahi dituzun beste. Hona hemen zenbait adibide:
 - Abuztuak 3: Larraul, Oiartzun, Usurbil...
 - Abuztuak 6: Getaria.
 - Abuztuak 7: Aia, Itziar, Deba.
 - Abuztuak 10: Berastegi, Elgoibar, Ikaztegieta
 - Abuztuak 14: Gaztelu, Gaztelu-Leaburu
 - Abuztuak 15: Donostia, Zarautz, Aretxabaleta, Azkoitia eta beste asko.



Kultur ekintza aipagarriak

- Musika Hamabostaldia, Donostian. Abuztuaren 13tik irailaren 2ra. Programa zabala eta kalitate onekoa.

Lehiaketak

- "Castilla y Leon" ipuin edo kondaketa txapelketa. Lanek 10 eta 30 orrialde bitartekoak izan behar dute. Saria: 200.000 pta. Lanak aurkezteko epea: urriak 1

- "Emilio Hurtada" Ipuin IX. Lehiaketa. Gai librea. Saria: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: abuztuak 17

- Argazki lehiaketa. Gaia: estatu espainoleko artea eta herri-tradizioak. Kolorez edo zuribeltzez. Aurkeztu beharreko lanak: 3 eta 5 bitarteko argazki-bildumak. Saria: - 500.000 pezetako sari berezia.

- modalitate bakoitzeko:
 - 1) 200.000 pta.
 - 2) 150.000 pta.
 - 100.000 pta. argazki bati (kartelak egiteko)

Lanak aurkezteko epea: urriak 31.

- "Marques de Lozoya" Ikerketa-lehiaketa. Lanak, argitaragabeak,

estatu espainoleko edozein hizkuntzatan aurkez daitezke. gaia: esatatu espainoleko herrietako kulturak osatzen dituzten arte eta tradizioetako edozein arlo. Saria:

- 1) 1.500.000 pta.
- 2) 1.000.000 pta.
- 3) 500.000 pta.

Lanak aurkezteko epea: urriak 31.

- Laburmetraien XX. Lehiaketa Nazionala. Alcalá de Henares.

Filme formatoa: 16 edo 35 mm. Iraupena: 45 min. Saria:

- 1) 500.000 pta.
- 2) 400.000 pta.
- 3) 300.000 pta.

Lanak aurkezteko epea: 90-10-1

Ikasketak

- Masterra kazetaritzan. Lizentziatuentzat. 1990eko urritik 1991ko irailera arte. Antolatzaile: EHU. Izena emateko epea: 90-9-15

Oporrak

- Zaldiketa ikastaroa Micheldorf-en (Austria) Maiatzetik urrira arte 6 egun zaldi artean emateko oporraldia. 32.900 pezetatan (bidaia aparte)

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Torreviejan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Neska ikasleek pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukalde, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10etatik aurrera.
- Alde zaharrean etxe merkea erosiko nuke. Deitu goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle taldeak alokatzeko pisua behar du Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.
- Hiru gaztek pisua alokatu nahi genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 78 26 52. Jesus M. Garitano.

LANA

- Gazte unibertsitariak udako hilabeteetan OHO ikasten ari diren neska-mutikoei klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 51 95
- Lizentziatuak klaseak emango lituzke: matematika, fisika eta kimika. IEE, LH, BBB eta OHO. Tfnoa: 79 27 74
- Neska euskaldunak umeak zainduko li-

tuzke udako hilabeteetan. Tfnoa: 79 98 30.

- Ikasle unibertsitariak udako hilabeteetan OHOKo klaseak eta IEE-BBBeko ikasleei matematika eta fisikako klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 52 31.
- Ikasle unibertsitariak klaseak emango lituzke. IEE eta OHO maila guztiak. Tfnoa: 79 37 96.
- 19 urteko gazteak uztailean edozein lan egingo luke. 79 19 82 telefonora deitu.
- Neska euskaldunak, udaran umeak zainduko lituzke. Esperientzia. 42 31 95. Ines. Donostia.
- Neska behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu gaueko 8.00etatik 10.00etara. Tfnoa: 79 67 49
- Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 60 30

SALEROSKETAK

- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- BMW batentzako maletak erosiko nituzke. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- Idazmakina salgai. Eskuan eramateko modukoa. Ia berria dago, ikasketak uzteagatik saltzen bait da. Tfnoa: 79 54 28. Leire.
- Camping-denda familiarra salgai (4 plaza), hozkailu txiki eta guzti. Deitu 79 24 66 tfnora.
- 90 zm-ko bi ohe, bi gaumahi eta 1,60 m-ko armairua salgai. Egoera onean eta merkea. Tfnoa: 79 33 56.
- Haur bizikleta GAC salgai 12-14 urte bitartekoentzat. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.

- Karro denda salgai. Tfnoa: 79 41 68.
- Salgai daude: Pastelentzako kamara-bitrina ia berria. Pastelentzako laba berria. Izozkientzako kamara ia berria. Brontzezko lanpara ederra. Prezio interesgarriak. Tfnoa: 79 23 58 eta 77 00 91
- Buzeatzeko jantzia salgai. "Beuchal" eskafandra: 3. taila, 6 mm-koa, "Beuchal" bular-prakak: 3. taila, 6mmkoa, betaurrekoak tutuaz, lehiaketarako hegalak, lehiaketarako "Champions" pistola, gerrikoa berunekin eta ganibeta eta ekipo osoarentzako motxila. Prezio egokia. Interesatuak dei egin 79 21 92 tfnora. 8.00etatik 14.00etara.

DENETARIK

- Egunero goizez Bilbora joan behar dut eta ez daukat autorik. Zeurean lekurik baduzu, deitu 79 32 02 telefonora. Gastuak erdibana. Deitu lehenbailehen.
- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereñoak Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- Laudiloiko ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batekin Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25.
- "El caserio" zarzuelari buruz bideo, disko, partitura eta informazio izanez gero dei ezazu Eresira, telefonoa 79 29 09.
- Gela konpartituaren ohea alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Abuztuaren hasieran Andaluziarantz doan norbaitek kotxean bi lagun eta bi motxilentzat lekurik badu, deitu. Gastuak erdibana. Tfnoak: 79 22 81 edo 79 09 25

ARRASATEN HILDAKOAK

Jose Luis Leira

Uztailaren 21ean. 27 urte.

Pilar Makazaga Aristegi

Uztailaren 21ean. 73 urte.

Julio Fernandez Presas

Uztailaren 22an. 26 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,

20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

Famauen ahotik

Sabina Etxebarria, sasoi bateko peskasaltzailie



Sabina ezkerretik bigarrena.

Gerra aurrien Zarugalden txarkuteri- xie

Zarugalden, oin pelukerixie dauen lekuen, gu hantxe bizitta gauz, eta hantxe negoziue eukitta be bai. Txarri-xek hiltzen gittuen. Akordetan naz hiru txorixo, ta pezetia ta xemeikue; lau mortzil, pezetia.

Gero dendia be bai tta, dana batera. Makiña batek itxi euskuen guri zorrien gerrie etorri zanien. Ez zan allegetan eta zorrien asko emoten zan. Baakitue zenbat kastillano etorri zien orduen Zerrajerara... Eta hareik duroik pe ikusi barik atozen...

Gerra ostien gure aittai kendu euztzen txarkuterixioi; tabernie be bagauken eta ha be kendu, ta ezebe barik.

Gerra ostien peskadeixie

Zelabaitt atara bihe gauen bizimodu ta gure ahiztiek esateuten: " aitta, baakitze ze ein bihe gauen ?.

Peskadeixie". "Ixilik eon hai ! peskadeixiek ze emongo jon ba, antxoak erreteko olixoik pe etxan eta". "Reginak esan dust asko saltzen dala ta, egositte

bsetiek ezpada jaten dauela jentiek". Ni akordetan naz, kilo biko legatza, -oin 2.000 pta ero izango da-, orduen lau pezeta t'ardi.

Txitxarruak, ez euki salidarik bai enbotetako ta ezetako be, ta txakur haundixe.

Arraiñe Donostiatik

Guri ekarten euskuen arraiñe Donostiatik automobilien.

Etorten zan automobil bat Santagedaraiño arraiñaz eta haretzek ekarten euskuen. Eta pasetan zan, Donostiatik kupue auen, eta guri domeketan ez euskuen emoten. Eta domeketan saltzen zan gehixen eta estraperluen ekarten euskuen. Gabon batzuetan kanbionkara bixigua salduta gauz. Orduen bixigüe erdi debalde egoten zan.

Plazan gauken guk peskazderixie.

Aramaixora, Atxabaletara... arrain saltzen

Anbulantiak eta asko egoten zien kaletan eta saltzen.

Ni neu be ibilite nau. Ni akordetan naz legatza hamen xei pezetan saltzen zan eta Aramaixon 12 pezetan saltzen nauen.

Karruakin juaten nitzen, eskuz, 16 kilometro... Sasoi baten,

Atxabaletara be, urtietan juengo nitzen egunero egunero; bota ulu bat: "antxo freskua!" ta bueno, niri asko erosten eustien Atxabaletan, ezauna be bai tta... Egunien bost pezeta kobretan eusten aiuntamentuek, saltzeatik.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Fernadok etzeukan jai egunetako trajeik eta ezta barrixa eitteko diruik pe. Eta zela topau berai trajia eingo zotsan jostunik? Lehen einddakuak pe zorretan zeuzkan eta jostun guztiak harek pagatzia eskatzen zotsen lenengo.

Hau dala ta Plaentziatik Bergara etorri zan. Kalian zijoiala aspaldiko lagun batekin egin zeban trink.

- Hi, lagundukostak halako jostun-
nan etxeraiño?

- Bueno, hori besteik ezpada...

- Hau zenbaten da?

- Hau mila ta berrehun pezeta -
jostunak.

- Karutxo da, karutxo. Mila pezan
eingo dogu tratua.

- Ezta pentsau be, nik eztot lanik
eitten dirua galtzeko -dendarixak go-
gor.

- Mila pezetatik gora txakurtxiki-
rik pez. Etxaittez ximurra izan.

Han jardun zebeu erregateo latzian bakoitzak beriari eutsiaz. Fernando burugogorra bazan jostuna haundi-xaua eta azkenian plaentziarra mila eta berrehun pagatzekotan geldittu zan. Neurrixak hartu zotsan eta Fernando eta bergatarra tabernara joan zien txikitotxo bat jotera. Han lagunak preguntau zotsan txokauta:

- Baiña Fernando, badakik ez mila
eta mila eta berrehun, bape eztsake-
la pagau bihar, eta zertarako hainbeste
ahalegin berrehun pezeta merketzeko.

- Bere hobe biharrez mutil. Hara,
jostun gixajo horrek erukixa emon
jostak eta hain temosua izan ezpalitz
eta tratua mila pezetan egin, berrehun
pezeta gutxiago galduko jittuan.

Juan Martin Elexpuru

comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05


hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Aramaio ibaia eta Ferixalekua 1930

M

aalako zubitik atera zen argazki honetan Aramaio ibaia ikus zitekeen. Gaur ez, ibaia estalita dago eta.

Ibaiaren eskuin aldera ferixalekua zegoen. Ostiraletan bertan egiten zen ferixa. Ganadua burdinezko barroteetan lotzen zen.

Eskuin aldeko etxearen (bota berri duten *Larragain*) azpian metal urezko iturria zegoen. Larragainen ezker aldean *Katzo* baserria, hau ere bota berri. Ezkerrerago *Villa Vitoria* (geroago 2. eta 3. solairuak erantsiko zizkieten), *Markoalde* eta ezker muturrean, ia Monterroneko parkea ikutuz, *Paparbaltz*. Ezker muturreko tontorra S.Kristobal da. Erdialdean Udalaitez.

Ibaiaren ezker aldean Resustaren ortuak hurbilen. Harantzago eginez, Plus Ultraren ortuak eta Trinketekoak (gaur Okendo Kirolaketen atzeko partean). 1934eko urriaren 5eko iraultzan, matxinatuek hainbat jende atxilotu zuten Trinketean, orduko Herri-Etxea edo Casa del Pueblo, tartean Marcelino Oreja Eloseggi (PPko Marcelino Orejaren aita), Dagoberto Resusta eta Ricardo Azkoaga, denak UCEMeko goi karguak. Zubi ondoko ortuetan zeudela, ihes egiteko ahaleginetan, hil egin zituzten lehen biak. Azkoagak bakarrik -balaz zaurituta-lortu zuen ihes egitea errekan gora. Zubitik ezkerretara eginez gero, Ospitale Zaharra ikus daiteke. Eskuina joanez gero, berriz, labaderora egiten zen.

Aproba polita egin dezakezue. Maalako zubira joan eta zebrabidearen erdialdetik begiratu ea zer ikusten duzuen. Udalaitez bai. Gainerakoa guztiz aldatuta edo izkutan.

**PUB
HAIZEA**




ENARA
OSAGIRRIAK



Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



B
e
s
t
i
-
F
l
a
s
h



Argazkilari batzuk goiko irudiaren zortzi eszena desberdin jaso dituzte. Lau dira, ordea, eta soilik, irudiaren une berean atereak. Zein dira?

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

ARRASATE
PRESS

77 05 65

Literatura edo bidaia ezan/k begiekin

Nagi. Alper. Gogobage. Sargori. Izerditan nabigatzen hagoela, altxa eskua, poliki, soseguz, hamaika hilabeteren zamaren izotza (ah, gustora hartuko nuke zeozer jelatua!) apurtuz eta bila ezan/k apaletan zero urdin zapaltzaile horretatik hanka egiteko tresna miresgarria.

Erropa. Aseguruko paperak. Botikina. Diru-Txartela hartzen gogoratu al haiz? Seguru zerbait ahaztu zaigula! Maleta itxi baino lehen gogora ezan/k gizonaren kartelaldietan, andrearen ezusteko desagerpenetan, lagunen berbetaldi akabera barikoetan, ez ahaztu libururen bat hartzea.

Iradokizun batzuk besterik ez: Juan Mari Irigoienen *Babilonia*: baserriaren historian galdu, antigualeko euskal mundu mitikoan barrena; Europan zehar izuaren ibilbidea berregin Joxemari Iturraldearen *Izua hemen* nobelaz, edota aspaldi honetan inork idatzi ez eta jasotzeko irrikitan zauden eskutiz luze, aldian harrigarria, aldian argigarria eskuratu nahi izatekotan (*Kaka espliketzen*, Juan Luis Zabala). Buzoira ez baizik liburudenda batera pasiotxo egin (itzalpean aukera ezan(k lasai).

G. M

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otatora Lizenziatua Arrasate

■ **Maite Idirin eta Jean Louis Davant.** Iragan ostiral gauean ikusi nituen ETBren lehen katean. Egun hartan, Maitek egiten zituen galderak eta euskaltzainak erantzun. Aurreko batean Panpi Ladutxe pilotaria eta Anje Duhalde abeslaria egon ziren. Denak Iparraldekoak, beraz.

Idea polita da, bi zentzutan. Ordua da Iparraldeko jendea Euskal Telebistaren bidez ezagut dezagun. Bestetik, erakargarria da eurentariko bati galdetzailearen papera ematea.

Jakina, formula honek baditu bere arriskuak, galdetzaileen aldetik batez ere, ez bait dira profesionalak. Panpi adibidez, ia zurikeriatan jausten ikusi genuen zenbaitetan eta Maite Iridinek behin baino gehiagotan galdetu baino zenbait eritzi baieztatzeko aprobe txatu zuen. Batzuetan, ezabatu egin zuen pantailatik Jean Louis Davant gizajoa.

Hala eta guztiz ere, formula erakargarria iruditzen zait eta ahal dudan neurrian, badut ikusteko asmoa.

■ **Irratiaren ezustekoak.** Egunero-egunero irratia entzun, telebista ikusi eta egunkari eta aldizkariak irakurtzen ditugunok, kejavu egiten gara askotan, mokoraino jartzen bait gaitu halako informazio inflakzioak.

Baina medio horiek falta zaizkigunean, horien mira sentitzen dugu, eguneroko ohiturak eragindako beharra. Azken asteburuan Landetara joan nintzen eta irratia txikia ahaztu. Asmoa nuen Tourraren azken bi etapen berri hondartzan entzuteko, baina ezin. Igande ilunkeran, bueltan, Frantziako itzulia amaituta zegoela, jakin izan nuen azken emaitza.

Egia esan, joaterakoan nahigabetu samarra banengoen ahazturagatik, itzuleran ez nintzela gehiegi gogoratu konturatu nintzen. Hori bai, egun bat irratia entzun barik egon ondoren, ezusteko ederra hartu genuen Euskadi Irratian, Arrasateko gazte bat hilda agertu zela etxean heroina sobredosiak jota entzun genuenean. Beti gertatzen da zerbait honengatik edo hargatik harrituko gaituena.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Etxera menditik:** Vincente Minnelliren filmea, larunbatean, gaueko 10etan. Antzezleak Robert Mitchum, Eleanor Parker eta George Peppard.

Wade Hunnicutt kapitaina, gizon emakumezale eta diktadorea da. Haren semeak, ordea, aitaren irudi faltsua sortuko du bere buruan...

■ **Firecreek:** Igandean, arratsaldeko 3.15etan, Vincent McEveetyk zuzendutako pelikula.

Lapur taldea Firecreek herritxora heltzen da. Garrantzi gutxiko algarak sortzen dituzte, eta sheriffak ez die kasu handirik egiten. Herriko gazte batek, ordea, aurre egingo die gutxien espero dutenean.

Antzezleak James Stewart, Henry Fonda eta Inger Stevens.

■ **Silent Partner:** Astelehen gaueko 10etan, Daryl Duke-ren filmea. Antzezleak Elliot Gould, Christopher Plummer eta Susanah York. Miles Cullen-ek banketxean egiten du lan. Bizitza guztiz normala darama. Egun batean, ordea, lapur bat ezagutu, eta zeharo aldatuko dira gauzak. Lan egiten duen banketxean ostea bururatzen zaio, edota bere lagunaren andregai konkistatzea...

bideoak



Euskaraz hautsi zure marka

Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratutako bideoa dugu hau.

Hainbat kirolari ezagunekin harremanetan jarri, eta horra hor euren laguntzarekin euskararen alde lortutako emaitza. Besteak beste Maria Luisa Irizar, Luis Miguel Arkonada, Pello Ruiz Cabestany, edota Roberto Lopez Ufarteren eritziak jasotzen dira bertan.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).




San Juanetan ATBren inguruan lanean ibili ziren guztietatik (teknikari, kazetari, aurkezle eta laguntzaile lanetan) hamazazpi bildu ziren afaltzera Meatzerekkako elkartean. San Juanak 90 ondo baino hobeto irten ziren eta afaria ere, beste horrenbeste.

aste ko

PROGRAMAZIOA

Uztallaren 30 eta 31n ez da programaziorik izango. Abuztuan ere ez, oporretan joango gara eta. Irailaren 3an, astelehena, izango gara berriro zuekin.



Donostian bizi diren mondragoetarrak sei urtetan bildu izan dira. Hasieran jende ugari; urteek aurrera egin ahala, berriz, dexente gutxiago. Aurrerantzerako beti egun berdina hartu nahi dute, eta ez orain arte bezala, urtero-urtero fetxak aldatuz. Hasiak dira dagoeneko datorren edizioan pentsatzen. Agindu ziguetenez, ATB eta Arrasate Pressi ere deituko diete. Argazkian, **Agustin Azkoaga**, Donostian bizi den arrasatearra.

Jerardo Elortza azkenaurreko *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan izan zen. Dakizueenez, Sebero Altube beka irabazi zuen Arrasateko euskara aztertzeko. Ari da mutila lanean. Abuztuan eta irailean zehar Mondragoe inguruan izango dugu inkestak egiten. Lanaren emaitza datorren udaberrian aurkeztuko du.



SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-
-proiektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan
espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Bakezale eta bihotz-zabalagoa egongo zara datozen egunetan, azkenaldian galduta zeneukan lilura zeuraganatu egingo duzu berriz ere.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Lagun zein familiartekoak zoroak bailiran ibiliko dira zure inguruan. Aukerarik onena behar adinako egonarría hartu eta egoerari aurre egitea izango da Leo.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ez da izango atsegina datorren astea sagitarioentzat, jasan ezinak izango diren zurrumuru ugari entzun behar izango bait dute. Irtenbide bakarra zentzudun, eta laguntzale izatea litzateke.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Baliteke aste honetan larritasun edo alhalgetasun krisialdiren bat pasatzea, ez egin jaramonik. Gogoan izan erabaki garrantzitsua hartu beharrean zaudela. Burutu nahi duzun plan horretarako eragozpenak sortuko dizkizu familiak.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Argi ibili beharrean zaude Virgo, zure inguruan maltzur ugari ibiliko bait da, amorrú bizian gainera. Saiatu zaitetz gauzak eta pertsonak bere tokian jartzen, orduan aldatuko bait dira ohitura horiek. Makal izango zara osasun aldetik.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Itxaropenez egoten jarrai ezazu zeurearekin aterako bait zara. Halere, ez itxaron gauzak ahoko zulora eman arte saiatu zaitetz zeu baina gogo onez.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Familia zein lagunetik jarraera positiboa izateak ondorio hobekak izango lituzke asmo hori gauzaterakoan. Burugogor jartzeak eragozpenak baino ez dizkizu sortuko.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Bi gauza dira Libra aste honetan ebitatu egin behar dituzunak. Ezagupen gehiegirik ez daukazu gaietan eritziak ematea bata eta iraganean oinarritzea bestea.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Txistu bizian ibiliko zara aste osoan, jasan ezina egongo zara horregatik eta jasan ezinak irudituko zaizkizu besteak. Ez duzu jakingo negar ala barre egin, hobe barre egiten baduzu.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zaitetz ibili ezkor eta goibel; hitzezko erasoak ebitatu. Ahal duzun neurrian bizi izaten saiatu gehiegikeriatan ibiltzeak ondorio larriak sortzen bait dizkio zure patrikari.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Egunerokotasunak murgildu zaituen gurpil zoro horretatik ihes egitea komeni zaizu. Ahal duzuna baino urrunago joaten eta eguneroko ereduak apurtzen saiatu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Argi dago ez duzula merezi daukazuna, konformatu zaitetz daukazunarekin, onartu egungo egoera; hobeto joango zaizu bizimodua. Irudikeria baino ez da amodio hori.



ARRASATEko UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat bekak ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora, edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean

Adi ATBren ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



IKER

XEY. Txikiagoa



**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

• **SUKALDE-ERAKUSKETA:**
Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42

ARRASATE